

## 6.- SOIN HEZIKETA

### 6.1.- DATU BILKETAREN EZAUGARRIAK

#### 6.1.1.- Inkesta

Soin Heziketako inkestak bi azpi-proba ditu eta Likert motako 25 itemez osatuta dago. Lehendabizikoak 7 item dauzka eta arloaren **kompetentzia orokorre**i dagokie. Beste 18 itemak berriz, arloaren **kompetentzia espezifikoei** dagokie.

Aurkeztutako kompetentzia bakoitzeko itemak 5 erantzun aukera ditu. Erantzuteko, arloan adituak direnei kompetentzia bakoitzaren balorazioa egitea eskatu zaie. Balorazio hori, 1etik 5era doan eskalan egin behar izan dute, aukera bakoitzaren esanahia ondokoa izanik:

- 1 = Hutsala
- 2 = Garrantzi gutxikoa
- 3 = Garrantzi ertaina
- 4 = Garrantzi handikoa
- 5 = Behar beharrezkoa

Inkesten fidagarritasuna Cronbachen Barneko Sendotasun Alfa Koefizientearen bitartez kalkulatu da, ondoko taulan azaltzen diren balioak lortuz. Ikus daitekeenez balio horiek guztiz egokiak dira.

	<b>Cronbachen Alfa</b>	<b>Ítem kopurua</b>
<b>Kompetentzia orokorren</b> azpi-proba	0,805	7
<b>Kompetentzia espezifiko</b> azpi-proba	0,883	18

Kompetentzia orokor eta espezifiko bakoitzaren balorazio kuantitatiboaz gain, balorazio kualitatiboa egitea ere eskatu zitzaizen adituei, ondoko koadroan agertzen den gidioa jarraituz:

**1.-Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**  
(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**2.-Iruzkinak**  
(Emandako balorazioari buruzko arrazoen azalpena, proposamenak...)

**3.-Inkesta erantzuteko erabilitako bideak**  
(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

### 6.1.2.- Partehartzaileak

Jarraian, laginaren aldagaien ezaugarriak azaltzen ditugu, ondoren, aldagai independente gisa, azpi-talde bakoitzaren konparaketa egiteko erabiliko ditugunak

#### Ikastetxe mota

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 ikastola	42	33,9	33,9	33,9
	3 kristau eskola	82	66,1	66,1	100,0
	Denera	124	100,0	100,0	

#### Lurraldea

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 Araba	13	9,0	9,0	9,0
	20 Gipuzkoa	59	41,0	41,0	50,0
	31 Nafarroa	2	1,4	1,4	51,4
	48 Bizkaia	50	34,7	34,7	86,1
	Iparralde	20	13,9	13,9	100,0
	Denera	144	100,0	100,0	

#### Hizkuntz eredua

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1,00 A	25	20,2	25,5	25,5
	2,00 B	20	16,1	20,4	45,9
	3,00 D	53	42,7	54,1	100,0
	Denera	98	79,0	100,0	
Galduak	Sistema	26	21,0		
Denera		124	100,0		

## 6.2.- ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK

**Item 1.-** Emozioek sorrarazten dizkiguten aldaketak identifikatzea. Halaber, izaten ditugun aldaketa fisiologikoak interpretatzea, eguneroko bizitzara horien transferentzia egitean, gure jokabide motorra ahalik eta orekatuena izan dadin.

**Item 2.-** Elkarrekintza motorra komunikazioaren oinarria izatea, eta, beste pertsona batzuen eta nire arteko komunikazioaren barruan, besteek egiten dituzten adierazpen motorrak irakurtzea, adierazpen horien bidez lortu nahi diren helburuak bete ditzan harremanak.

**Item 3.-** Jokabide motorra unibertso kulturalaren (etnomotrizitatea) ikuspegitik ulertzea. Halaber, jokabide motor orori sare sinboliko bat (espazioa, denbora, besteak, objektua) lotzen zaiola deskubritzea, eta, horretaz jabetuta, euskal kulturaren baloreak zein kanpoko kulturen baloreak errespetatzea eta balioestea.

**Item 4.-** Ludikotasuna elkarrekintzaren ardatza izatea eta pertsonen arteko komunikazio ludikoaren indarra ulertzea, eguneroko bizitzako arazoan aurrean azterketa egokiak egiteko eta erabaki baikorrak hartzeko.


**Item 5.-** Espazioaren ziurgabetasuna pedagogikoki erabiltzea, eta ziurgabetasun horrek sorrarazten dizkigun aldaketa emozionalak interpretatzea, eguneroko bizitzaren ziurgabetasunak sortzen dizkigun zalantzei ahalik eta erantzun zuzen eta neurritsuenak emateko.

**Item 6.-** Osasuna bere osotasunean ulertzea eta lantzea, eta osotasun horrek dituen ezaugarriak (fisiologikoak, biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, psikologikoak, higienekoak, dietetikoak, eta abarrekoak) ezagutzea, bizitza orekatua izateko.

**Item 7.-** Gaitasun eta trebetasun fisikoak jokabide motorraren lagungarri izatea. Halaber, gaitasun eta trebetasun horiek haur eta gazteen bilakaera ebolutiboarekin batera garatzea eta suspertzea, soinen plastizitateak pertsonaren natura primarioarekin bat egin dezan.


**6.2.1.- Konpetentzia orokorrak eta ikastetxe mota**

ikastetxe mota		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
1 ikastola	Batazb.	4,17	4,26	4,24	4,41	4,46	4,71	4,52
	N	42	42	42	41	41	41	42
	Desb. tip.	,908	,798	,878	,741	,674	,559	,594
3 kristau eskola	Batazb.	3,57	3,84	3,88	4,04	3,62	4,65	4,42
	N	81	81	81	80	81	81	81
	Desb. tip.	,851	,782	,812	,863	,982	,574	,610
Denera	Batazb.	3,77	3,98	4,00	4,17	3,90	4,67	4,46
	N	123	123	123	121	122	122	123
	Desb. tip.	,913	,810	,849	,840	,974	,567	,604




## 6.2.2.- Konpetentzia orokorrak eta lurraldea

lurraldea		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
1 Araba	Bataz.	3,77	4,08	4,15	4,08	4,23	4,62	4,15
	N	13	13	13	12	13	13	13
	Desb. tip.	,599	,760	,689	,793	,599	,650	,689
20 Gipuzkoa	Bataz.	3,76	3,86	3,93	4,26	3,82	4,67	4,43
	N	58	58	58	57	57	58	58
	Desb. tip.	,885	,868	,856	,856	1,002	,543	,565
31 Nafarroa	Bataz.	5,00	5,00	4,50	5,00	5,00	5,00	5,00
	N	2	2	2	2	2	2	2
	Desb. tip.	,000	,000	,707	,000	,000	,000	,000
48 Bizkaia	Bataz.	3,74	4,06	4,02	4,04	3,86	4,67	4,54
	N	50	50	50	50	50	49	50
	Desb. tip.	1,006	,740	,892	,832	1,010	,591	,613
Denera	Bataz.	3,77	3,98	4,00	4,17	3,90	4,67	4,46
	N	123	123	123	121	122	122	123
	Desb. tip.	,913	,810	,849	,840	,974	,567	,604



6.2.3.- Konpetentzia orokorrak eta hizkuntz eredia

eredua		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6	ko7
1 A	Bataz.	3,56	3,76	3,80	3,96	3,68	4,64	4,20
	N	25	25	25	24	25	25	25
	Desb. tip.	,917	,779	,866	,859	,945	,638	,707
2 B	Bataz.	3,65	3,70	3,70	4,10	3,40	4,75	4,55
	N	20	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,745	1,031	,865	,912	1,142	,444	,510
3 D	Bataz.	4,06	4,13	4,21	4,35	4,22	4,63	4,52
	N	52	52	52	52	51	51	52
	Desb. tip.	,895	,742	,800	,711	,730	,599	,577
Denera	Bataz.	3,85	3,95	4,00	4,20	3,91	4,66	4,44
	N	97	97	97	96	96	96	97
	Desb. tip.	,894	,834	,854	,803	,941	,577	,612



**6.3.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK**

**Item 1.-** Oinarrizko sentipenak (haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poztasuna, alaitasuna, maitasuna, gorrotoa, harridura, mespretxua, lotsa) identifikatzea, eta sentipen horien mekanismoa nolakoa den bizitzea eta beste pertsona batzuei adierazten jakitea.

**Item 2.-** Oinarrizko sentipenak fisiologikoki sorrarazten dituzten aldaketak ezagutzea, eta, sintoma horien arabera, hautematen diren emozioak errespetatzea eta horien adierazpenak kontrolatzea.

**Item 3.-** Soinaren tonua neurtzen jakitea, eta egin beharreko ekintzarako tonu egokiena aukeratzea.

**Item 4.-** Tonus jakin bat izateak komunikaziorako duen garrantziaz jabetzea eta tonus hori lortzea.

**Item 5.-** Jolas eta jokoak adierazle sinbolikoak dituztela aztertzea, eta horiek komunikaziorako duten balioaren transferentzia egitea bizitza arruntera.

**Item 6.-** Erabakiak hartzeko, erabakiaren prozesu osoa (egoera eta balizko erantzunaren aldagaiak aztertzea, emaitza aurreikustea, aukera guztien artean bat hautatzea eta ekitea) ezagutzea eta tempo bat baino gehiagotan praktikan jartzea (berehala, lasaitasunez...).

**Item 7.-** Egoera ludiko guztietan erabiltzen dira gestemak eta praxemak. Egoera ludiko horietatik transferentziak egitea eguneroko bizitzara; hau da, bestearen postura, portaera zein jarrera interpretatzea eta, interpretazio horren arabera, erabaki bat hartzea.

**Item 8.-** Euskal kulturaren esparru ludikoak duen presentzia ezagutzea, eta umorea lantzea eta erabiltzea pertsonen arteko komunikazio bide izateko.

**Item 9.-** Euskal Herriko bazterrek ematen dituzten aukerak erabiltzea, eta horietan egin daitezkeen jardueren bitartez, trebetasunak esperimintatzea eta lantzea.

**Item 10.-** Euskal tradizio ludikoa (dantza, inauteriak, jokoak...) ezagutzea eta interpretatzea.

**Item 11.-** Munduko tradizio ludikoak ezagutzea eta interpretatzea.

**Item 12.-** Gure gizartean osasunari buruz dagoen ikuspuntua era kritiko eta autonomoan aztertzea.

**Item 13.-** Osasuna euskararen eta euskal kulturaren ikuspuntutik ikertzea eta adieraztea.

**Item 14.-** Osasunaren ezaugarriak adieraztea eta horiek garrantziaren arabera sailkatzea.

**Item 15.-** Osasun orekatua izateko, osasunaren ezaugarriak nola uztartu behar diren ikertzea eta barneratzea.


**Item 16.-** Gaitasun eta trebetasun fisikoak zerrendatzea eta horien ezaugarri fisiologikoak azaltzea.

**Item 17.-** Hainbat ekintza jokoren bitartez, gaitasun eta trebetasun fisikoak esperimintatzea eta lantzea.

**Item 18.-** Soin Heziketa Arloaren balorazioa oro har.

### 6.3.1.- Konpetentzia espezifikoak eta ikastetxe-mota


ikastetxe mota		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	
1 ikastola	Batazb.	3,95	3,98	4,34	4,08	4,31	4,45	4,22	4,03	4,44	4,22	3,83	4,46	3,83	4,43	4,44	4,43	4,69	4,27	
	N	41	41	41	40	42	40	41	40	41	41	42	41	40	42	41	42	42	42	40
	Desb. tip.	,947	1,084	,855	,944	,841	,639	1,037	,974	,673	,852	,935	,778	1,059	,703	,709	,630	,517	,847	
3 kristau eskola	Batazb.	3,70	3,64	4,00	3,73	3,94	4,28	3,90	3,84	4,00	4,05	3,51	4,27	3,37	4,16	4,31	4,26	4,54	4,14	
	N	81	81	81	81	80	81	78	81	80	81	80	81	80	81	81	81	81	81	79
	Desb. tip.	,968	,870	,758	,822	,700	,778	,676	,766	,763	,757	,779	,742	1,048	,697	,701	,685	,593	,655	
Denera	Batazb.	3,79	3,75	4,11	3,84	4,07	4,34	4,01	3,90	4,15	4,11	3,62	4,34	3,53	4,25	4,35	4,32	4,59	4,18	
	N	122	122	122	121	122	121	119	121	121	122	122	122	120	123	122	123	123	119	
	Desb. tip.	,964	,956	,805	,876	,769	,737	,828	,841	,760	,791	,846	,756	1,069	,708	,703	,669	,570	,724	



6.3.2.- Konpetentzia espezifikoak eta lurraldea


lurraldea		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18
1 Araba	Bataz.	3,75	3,58	4,08	3,92	3,75	4,67	4,00	3,75	4,00	3,92	3,50	4,08	3,25	4,33	4,42	4,33	4,50	4,00
	N	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	11
	Desb. tip.	,754	,515	,669	,669	,866	,492	,739	,754	,739	,515	,522	,793	1,055	,492	,669	,492	,522	,447
20 Gipuzkoa	Bataz.	3,79	3,81	4,12	3,82	4,12	4,25	3,93	3,79	4,05	4,09	3,61	4,46	3,58	4,31	4,34	4,41	4,66	4,21
	N	58	59	58	57	58	57	56	58	58	58	59	59	57	59	58	59	59	58
	Desb. tip.	,913	,880	,751	,889	,751	,763	,951	,833	,711	,779	,831	,727	1,133	,771	,690	,619	,545	,833
31 Nafarroa	Bataz.	4,50	5,00	5,00	5,00	5,00	5,00	5,00	5,00	5,00	4,50	4,50	5,00	5,00	5,00	5,00	4,50	5,00	5,00
	N	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
	Desb. tip.	,707	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,707	,707	,000	,000	,000	,000	,000	,707	,000
48 Bizkaia	Bataz.	3,76	3,67	4,08	3,80	4,04	4,34	4,06	4,02	4,27	4,16	3,63	4,22	3,47	4,14	4,32	4,20	4,52	4,17
	N	50	49	50	50	50	50	49	49	49	50	49	49	49	50	50	50	50	48
	Desb. tip.	1,080	1,107	,900	,904	,755	,745	,689	,854	,811	,866	,929	,771	,981	,670	,741	,756	,614	,630
Denera	Bataz.	3,79	3,75	4,11	3,84	4,07	4,34	4,01	3,90	4,15	4,11	3,62	4,34	3,53	4,25	4,35	4,32	4,59	4,18
	N	122	122	122	121	122	121	119	121	121	122	122	122	120	123	122	123	123	119
	Desb. tip.	,964	,956	,805	,876	,769	,737	,828	,841	,760	,791	,846	,756	1,069	,708	,703	,669	,570	,724





### 6.3.3.- Konpetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredua

eredua		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	
1 A	Bataz.	3,58	3,42	3,96	3,71	3,88	4,33	3,92	3,88	3,92	4,00	3,65	4,00	3,37	4,00	4,25	4,13	4,38	4,04	
	N	24	24	24	24	24	24	24	24	24	24	23	24	24	24	24	24	24	24	23
	Desb. tip.	1,018	,974	,751	,908	,741	,761	,654	,612	,776	,780	,714	,780	,970	,722	,676	,741	,647	,475	
2 B	Bataz.	3,80	3,70	4,25	3,70	4,05	4,20	3,85	3,90	4,15	4,25	3,50	4,30	3,50	4,30	4,50	4,30	4,55	4,00	
	N	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,834	,657	,716	,979	,759	,894	,813	,553	,671	,550	,607	,865	1,318	,657	,607	,657	,686	,918	
3 D	Bataz.	3,87	3,92	4,17	4,02	4,17	4,31	4,14	4,08	4,27	4,12	3,75	4,43	3,81	4,38	4,31	4,47	4,72	4,38	
	N	52	53	52	52	52	51	51	52	51	52	53	53	52	53	52	53	53	52	
	Desb. tip.	,950	1,053	,810	,828	,834	,707	,939	,904	,750	,943	,939	,721	1,030	,686	,755	,608	,495	,745	
Denera	Bataz.	3,78	3,75	4,14	3,87	4,07	4,29	4,02	3,99	4,16	4,11	3,68	4,30	3,64	4,27	4,33	4,35	4,60	4,22	
	N	96	97	96	96	96	95	95	96	95	96	96	97	96	97	96	97	97	95	



## 6.4.-EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

### 6.4.1.- Emaizten laburpena

#### Konpetentzia orokorrak

Soin Heziketa arloan planteatutako 7 konpetentzia orokorretatik, denak oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako adituengandik, 4aren inguruko edo 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespena 1. konpetentzia orokorra da. Kasu honetan balorazioen batezbestekoa 3,77 da. Beraz, konpetentzia hau berrikusi beharko litzateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako adituen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia orokorre emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako adituek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia orokor gehienetan. Soil-soilik, 5. konpetentzian gertatu da diferentzia adierazgarria. Kasu honetan gehien baloratu dituztenak D eredu adituak izan dira, ondoren B ereduak eta azkenik A ereduak.
- Eskola-sarearen arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu batzuetan. Aurretiko tauletan ikus daitezkeen bezala 1., 2. eta 5. konpetentzia orokorretan, ikastoletako adituek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako adituek baino. Gainontzeko konpetentzietan ez da diferentziarik antzeman.

#### Konpetentzia espezifikak

Soin Heziketa arloko 18 konpetentzia espezifikoei buruz adituek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak baitira. Dena den, berrikuspenera behar duten 5 konpetentzia badaude (1., 2., 5., 11. eta 13. konpetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek adituen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako adituen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako adituek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia espezifikoetan.
- Lurralde desberdinetako adituen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Aurreko joera jarraituz, ikastoletako adituen eta kristau eskoletako adituen balorazioen batezbestekoak parean daude eta ondorioz ez da estatistikoki diferentzia adierazgarririk antzeman aztertutako konpetentzia espezifiko desberdinetan. Dena dela, hau ez da gertatu 9. konpetentzian, ikastoletako adituen batezbestekoa, kristau eskoletako adituena baino altuagoa izan baita eta diferentzia adierazgarria gertatu baita. Beraz, konpetentzia hau berrikusi beharko litzateke.

### 6.4.2.- Hobekuntza proposamenak

Arlo honen inguruan, iritzi ugari jaso izan dugu; agian, orain arte lantzen ez ziren hainbat alderdi jorratzea proposatzen delako (16-1), eta orokorrean ariketa fisikoari ematen zaiolako egungo planteamentuan lehenetsua (8-1, 41-1, 64-3). Planteamentua ulertzeko zailtasuna ere aipatzen da (23-1, 53-1, 59-1, 81-3, 94-3, 99-3, 100-3, 139-3, 158-3, 214-1), modu argiagoa eta zehatzagoan idatzi beharko litzatekeela alegia (142-3, 214-1), eta emozioei, adierazpenari eta planteamentu psikologikoari ez ote zaien garrantzia handiegia ematen (15-1, 34-1, 55-1, 94-3, 129-3), bai eta "euska" planteamentuari ere (27-1, 100-3, 104-3). Hala ere, orokorrean harrera ona izan du arloak (15-1, 36-1, 50-1, 108-3, 214-1). Arlo gehienetan bezala, honetan ere, irakaslearen prestakuntzaren beharra azpimarratu da (16-1, 94-3, 108-3)

Hobekuntza proposamenetan, honako gai hauek ere txertatzea iradoki dituzte galdeketa erantzun dituztenak eta adituak:

- Familia, testuingurua, norberaren ezaugarriak...ere kontutan hartu behar dira. (26-1, 206-3)
- Zenbait kirol ekintzen garapen teknikaren garrantzi handiagoa eman; beti ere osasuna, inguru naturala eta oreka zainduaz, alderdi onuragarriak eta kaltegarriak baloratuaz (36-1, 20-1, 91-3, 98-3, 129-3, 130-3, 131-3, 136-3, 140-3, 146-3, 157-3, 206-3)
- Hezkidetzat landu (56-1, 159-3)

- Komunikazioa landu (206-3)
- Talde-lana eta baloreak landu (100-3, 104-3, 114-3, 146-3, 206-3)

Baliabideak direla eta, orokorrean, hauen egokitzapen eta hornikuntza premia agertzen da batetik (16-1, 23-1, 29-1, 63-3, 75-3, 100-3, 125-3, 129-3, 139-3, 150-3), eta bestetik, egungo ordutegia mugatuegia dela arlo hau sakontasunez lantzeko (8-1, 16-1, 23-1, 25-1, 29-1, 45-1, 63-3, 75-3, 91-3, 100-3, 102-3, 125-3, 129-3, 134-3, 159-3). Honetaz gainera, baliabide materialen eta ikasmaterialen premia agertzen da (53-1, 83-3, 88-3, 91-3, 100-3, 139-3, 150-3)

Arloa ebaluatzea langintza zaila irudikatzen da, besteak beste emozioak ebalua daitezkeen ere zalantzan jartzen delako (16-1, 63-3, 125-3)

Balorazio eta ekarpen hauek egiteko, irakurketa, batzarrak, talde hausnarketa, ikastetxeko esperientzia eta errealitatearen behaketa erabili dute erantzuleak.